



Kanpo belarriko entzunbidea tinpanoa kanpoaldearekin komunikatzen duen hodia da.



Bertan hainbat gaixotasun eman daitezke, horien artean **exostosia**. Exostosia kanpo belarriko entzunbidea inguratzen duen hezuraren hazkundera da, eta horrek hodiaren estutzea dakar.



- Gaixotasun hau emateko kausa nagusienetako bat ur hotzarekin izandako kontaktu jarraia legoke. **“Surfer’s ear”** izenarekin ere ezagutzen da gaixotasun hau.
- Mundu mailan ikerketa asko egin dira surfisten artean. Ikerketa horien ondotik, surfariek uretan pasatzen duten denbora eta gaixotasun hau izateko probabilitatea erlazionatu dira.
- Emandako galdetegiaren helburua **gure inguruan** arazo honek duen **garrantzia ezagutzea** da.
- **Ez da gaixotasun larria.**
- Normalean arazorik ematen ez badu ere, hodiaren estutzea handia denean garbitzeko arazoak eman ditzake, baita otitis-a sortu edota taponamendu sentrazioa eman ere.
- Kasu larrietan (oso gutxitan) hezur hazkuntza hori kirurgikoki kendu behar izaten da.
- Neurrizko tapoiak erabilia prebenitu daiteke.